

LETRA DESBERDINAK

Jarduera honekin hau landuko dugu:

Desparekotasunaren kontzeptua.

Bidegabekeriak.

Jarrera kritikoak bidegabekeriaren aurrean.

Garapen jasangarrirako 10. helburuak.

Iraupena

Saio bat.

1., 2. eta 3. **zikloak**

Hasi aurretik

Inprimatu eta moztu lau laukizuzenak taldeen artean banatzeko. Taldeek bokal kopuru desberdina dute beren esku, jardueran haien artean dagoen desparekotasuna adierazteko.

Komeni da taldeek ez jakitea besteek zer letra dituzten.

Garapena

Banatu ikasleak lau taldetan. Eman talde bakoitzari eskuragarri izango dituzten bokalak adierazten dituen papera. Azaldu:

“Paperean dituzuen bokalak erabiliz, ahal dituzuen hitz zuzen guztiak idatzi behar dituzue. Horretarako, behar dituzuen kontsonante guztiak erabil ditzakezue, baina eman zaizuen paperean agertzen zaizkizuen bokalak bakarrik erabil ditzakezue. Hitzak idaztean, erabiltzen dituzuen bokalak kentzen joan behar duzue”.

Eman denbora bat (hamar minutu inguru) hitzak idatz ditzaten. Denbora hori igarotakoan, eskatu taldeei, D-tik hasita, esan ditzatela sortu dituzten hitzak, eta idatzi arbelean zenbat idatzi dituen talde bakoitzak.

Egin gogoeta

Lau taldeek beren hitzak esan ondoren, jardun gaiaz ikasleekin, honelako galderak eginez:

- Zein taldek osatu dituzte hitz gehien? Ba al dago hitzik osatu ez duen talderik?
- Jarraibide berak zituzten talde guztiek? Bokal kopuru bera al zuten talde guztiek, hitzak egiteko?
- Bidezkoa al da bokalak banatzeko modua?
- Bidezkoa litzateke taldeei lortu duten hitz kopuruaren arabera berdin baloratzea? Zer egin beharko litzateke talde guztiak berdin baloratu ahal izateko?
- Talderen bati erabili gabeko bokalik geratu al zaio?
- Hala bada, bururatu al zaie beste talderen batekin partekatzea? Zer iradokitzen digu horrek?

EBAKITZEKO

A taldea

Hauek erabil ditzakezue:

7 A

7 E

5 I

4O

3U

B taldea

Hauek erabil ditzakezue:

7 A

6 E

4 I

3O

3U

C taldea

Hauek erabil ditzakezue:

5 A

4 E

3 I

2O

3U

D taldea

Hauek erabil ditzakezue:

3 A

2 E

2 I

1O

1U

DESPAREKOTASUNAK IKUSARAZTEA

Jarduera honekin hau landuko dugu:

Bizi-itxaropenaren kontzeptua.

Desparekotasuna eta desberdintasuna.

Garapen jasagarriko 1.,3.,10. helburuak.

Iraupena

Saio bat.

2.eta 3. zikloak

Hasi aurretik

Jarduera honen helburua da datuen bidez desparekotasunaren gaia ezagutzea, aztertzea eta hausnartzea, desparekotasunak pertsonen bizitzan dituen ondorioei buruz hausnartzen laguntzeko.

Garapena

Ikasleei Giza Garapenaren Indizea (GGI) kontzeptua azaltzea, **infografia**, munduko herrialdeak indize horren arabera nola sailkatzen diren ikus dezaten.

Jaiotzean dagoen bizi-itxaropenaren taula **ikusaraztea** eta kontzeptu hori azaltzea.

Hori egindakoan, datu hauekin eragiketa matematikoak egitea proposatzen dugu, datuak konparatu ahal izateko eta errazago hausnartzeko:

- Ikasgela munduko biztanleria osoa dela jota, atera GGIaren sailkapeneko lau taldeetako bakoitzean zenbat ikasle egongo lirartekeen.

Izandako emaitzak kontuan hartuta, lau taldetan banatuko ditugu ikasleak, eta lau herrialde motak irudikatuko dituzte. Taldeetan, eskatu pertsona bakoitzari dagokion bizi-itxaropena buruz ikasteko, neskak edo mutilak diren kontuan hartuta.

Gure jaiotza-lekuak gure bizitzetan zer eragiten duen ikus dezaten, jarduera bat egingo dugu. Azaldu:

“Orain, denek zutik jarri behar duzue. Urteak esaten hasiko gara, eta eseri egingo zarete, zenbatzean, esaten den zenbakia buruz ikasi duzuen bizi-itxaropenaren berdina denean”.

Hasi 50etik aurrera zenbatzen, eta jarraitu bizi-itxaropen handienara arte. Talde bat eseri denean, gelditu une batez, guztiak horren kontziente izan daitezen.

Egin gogoeta

Hitz egin ikasleekin, honelako galderak eginez:

- Zein da lehen inpresioa dinamika egitean?
- Egin duguna ikusita, zerk ematen dizue atentzioa?
- Bizi-itxaropena: Elikadurarekin lotuta dago? Osasun-zerbitzuekin? Zuen ustez, zer beste elementurekin lotuta egon daiteke bizi-itxaropena?
- Dinamikan ikusi dugunarekin, atera dezakegu ondoriorik?
- Pentsatu zure aitona-amonetan. Ezagutuko zenituzkeen GGiko taldeetako herrialde jakin batzuetan bizi izan bazina?

Bizi-itxaropena jaiotzean (urteak)

GGI	batezbesteko	emakumeak	gizonak
Oso altua	78,5	81,6	75,6
Altua	74,7	77,7	71,9
Ertaina	67,4	69,4	65,6
Baxua	61,3	63,4	59,6

Iturria: Giza Garapenari buruzko txostena. Nazio Batuen Garapenerako Programa 2022

ABERASTASUNAREN BANAKETA

Jarduera honekin hau landuko dugu:

Desparekotasunaren eta bidegabekeriaren kontzeptuak.
Jarrera kritikoak bidegabekeriaren aurrean.
Garapen jasagarriko 1.,10. helburuak.

Iraupena

Saio bat.

2.eta 3.**zikloak**

Hasi aurretik

Munduko aberastasunaren banaketaren datuak **populazio helduarentzat** kalkulatzeko dira, adingabeen eskuetan dagoen aberastasuna hutsaltzat har daiteke-eta. Baina pertsona horietako askok beren ardurapean adingabeak dituztenez, baliabide horiek pertsona gehiagoren artean partekatu behar izaten dira.

Munduko populazio heldua		Munduko aberastasunaren ehunekoa
milioiak	Ehunekoa	
62,5	% 1	% 48
627	% 12	% 38
1.791	% 34	% 13
2.818	% 53	% 1

Iturria: Credit Suisseren aberastasun globalaren txostena 2022

Ikasleak taldetan banatzeko, aberastasun global handiena duten bi populazio-taldeak elkartuko ditugu; izan ere, aberastasun handiena duen munduko biztanleriaren ehunekoa (% 1) ezin dugu inoiz gela baten neurriko talde batean islatu. Horrela, hiru talde geratuko lirateke, taula honen arabera:

Taldeak	Ikasgelako ikasleen ehunekoa	Aberastasunaren ehunekoa
A	% 13	% 86
B	% 34	% 13
E	% 53	% 1

Jarduerarako, 1.000 € taldeen artean banatu behar dira, taulan agertzen den proportzioaren arabera.

Kontuan hartuta C taldean jende askotxo egon daitekeela, bi talde egin daitezke hartatik, eta horrek erraztu egingo du talde bakoitzaren barruko elkarriketa, nahiz eta, horrela eginez gero, dirua ere zatitu beharko litzatekeen.

Garapena

Banatu gela hiru (edo lau) taldetan. Azaldu hau:

“Imajinatu munduko aberastasuna eguneko 1.000 € direla 100 pertsona heldu bakoitzeko. Taldeetan, ehunekotan, 100 pertsona horiek ordezkatzeko ari zarete. Aberastasun horretatik 3 taldeen artean banatuko dugu dagokizuen zatia. Egin behar duzuen da taldekide bakoitzari dagokiona banatu. Talde barruan pentsatu eta komentatu behar duzue, nola biziko zinateketen egun batez egokitu zaizuen diruarekin. Kontuan hartu beharreko datu bat da pertsona helduak ordezkatzeko dituztela, eta, beraz, adingabeak ere gehitu beharko dituztela; hau da, zuen kasuan pentsatuz, zuen anai-arrebak”.

Taldeei kalkuluak egiteko tarte bat utzi ondoren, eta C taldetik (edo taldeetatik) hasita, eskatu esateko 1.000 € horietatik zenbat tokatu zaien, jendearen artean nola banatu duten, nola sentitu diren eta zertaz hitz egin duten.

Hau;marktarako jarraibideak:

Amaitutakoan, hitz egin ikasleekin, honelako galderak eginez:

- Zein da taldeak entzun osteko lehen inpresioa?
 - Bidezkoa iruditzen zaizue diruaren banaketa? Ados zaudete egokitu zaizuenarekin?
 - Diru gutxien zeneukaten taldeak, behar bezala bizi zaitezke horrekin? Diru gehien duten pertsonak pozik egon daitezke banaketa horrekin, baina bidezkoa al da?
 - Bilatu banaketa modu bidezkoagoan egiteko modua. Zenbat egokituko litzaioke pertsona bakoitzari?
 - Denak pozik al zaudete banaketa berriarekin? Zuen ustez, bidezkoagoa al da horrela?
 - Norbaitek galdu egin duela sentitzen du?
- Aberastasunaren banaketaren datuak munduko populazio helduarentzat kalkulatu daude. Baina pertsona horietako askok beren ardurapean adingabeak dituztenez, baliabide horiek pertsona gehiagoren artean partekatu behar izaten dira.
- Zuen ustez, beharrezkoa al da munduko aberastasunaren banaketa bidezkoagoa egitea? Zergatik?